

Mondragon Unibertsitateak eta Puerto Rico-ko unibertsitateak lankidetzeta hitzarmena sinatu dute

2008/04/17

Mondragon Unibertsitateak eta Puerto Rico-ko Unibertsitateak, lankidetzeta akademiko eta elkartrukeko Hitzarmen Orokorra sinatu dute. Hitzarmen honen bitartez, irakasle eta ikasleen artean gauzatuko diren esperientzia akademiko, zientifiko eta kulturalen oinarriak ezartzen dira.

Unibertsitate bien artean sortuko den elkarlana, batez ere ondorengo esparruetan gauzatuko da:

- Ikasle eta irakasleen elkartrukea.
- Kongresu, Seminario eta Hitzaldien antolakuntza. Unibertsitateko komunitatearen eta kanpoko komunitatearen garapen profesionalerako tailerren sorrera; ikerketa desberdinen garapena eta trukea.
- Liburu, argitalpen eta informazioaren partekatze amankomuna.
- Ikerketa eta ikertzaileen formakuntzaren inguruko informazioaren elkartzeke.
- Kultur ekintzen trukea eta bidaia hezitzaileen antolakuntza.
- Bi unibertsitateetako pertsonen garapen profesionalerako aukeren sorrera denboraldi sabatikoak eta beste eratako lizentziak erabiliz.

